



Azpeitiko Udala

## **OLATZ EIZAGIRRE ORBEGOZO, AZPEITIKO UDALEKO IDAZKARIAK.**

**ZIURTATZEN DUT:** Udalbatzak 2022ko martxoaren 8an egindako bilkuran, Udalaren eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren artean uraren ziklo integrala kudeatzeko gomendioa egiteko hitzarmena onartu zuela.

### **AZPEITIKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA URAREN ZIKLO INTEGRALA KUDEATZEKO ENKOMIENDA ONARTZEA.**

Aurrekariak:

Udalbatzak **2012ko otsailaren 17an** egindako bilkuran adostu zuen uraren ziklo integralaren kudeaketa (hornidura eta saneamendurako "goiko" eta "beheko" sareen kudeaketa) Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku uztea hamar urterako. Kudeatzeko enkomienda hori Lankidetzaren Hitzarmen baten bidez gauzatu zen, eta bertan jasoko ziren bi erakundearen arteko eskubide, betebeharrak eta konpromiso guztiak.

Lankidetzaren hitzarmena sinatzearekin batera Gipuzkoako Ur Kontsortzioak Udalari kopuru bat ordaintzeko konpromisoa hartu zuen, eta modu berean Kontsortzioarekin hamar urteko inbertsio konpromiso bat ere adostu zen.

Horrez gain, Udalak honako hauek ere onartu zituen:

- Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku izango da Udalaren gain dagoen zaborraren zerbitzuagatik herritarrei dagokien tasa kobratzea (zerbitzua ematea Urola Erdiko Mankomunitatearen gain dago eta tasaren gainerako kudeaketa lanek Udalaren esku jarraituko dute).

- Udalak Gipuzkoako Ur Kontsortzioari Erdikalean Azpeitia Lan-tzen S.A.ren jabetzakoa den lokala alokatuko dio, eskuordetzeak bitartean.

- Gipuzkoako Ur Kontsortzioak ur-zerbitzua eskaintzeko duen azpiegitura edo sarea behar bezala digitalizatu ondoren, Udalari jakinaraziko zion. Kudeaketak jarraitzen duen bitartean eta informazioa eguneratzen den heinean Udalari horren berri emango dio.



-0-

Hamar urte pasa dira, eta orain aurretik hartutako konpromiso hori hitzarmen berri batekin eguneratzea nahi da (oinarrizko hitzarmen hau datuak babesteko beste hitzarmen batekin ere osatuko da).

Bi erakundeak proposatu duten hitzarmenak uraren ziklo integralaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Kontsortzioren gain uzten du, Gipuzkoako Urak EAren bitartez, eta horretarako azterlan-ekonomiko bat egin da. Epealdiari dagokionez, hitzarmenak 2022ko apirilaren 1etik hasita hamar urteko epealdia aurreikusten du. Epealdi hori automatikoki berrituko da Udalak beste erabaki bat hartu ezean.

Azterketa ekonomikoa kontuan izanik, Kontsortzioak 10 urteko epean BEZa barne 3.374.598 €ko inbertsioa aurreikusi du. Bertan sartuta dago eraberritze kostua, 10 urteko inbertsioa, errekaudazio eta kostearen artekoa eta Udalari ordaindu beharreko kopurua. Kopuru hori 433.146 €koa da (BEZa barne).

\*Kopuru honen ordainketa egiterakoan Udalak eta kontsortzioak kofinantziazio bat egiten dute uraren instalazioak eraberritzeko garaian. Hitzarmen berriak bi erakundeen arteko informazioa nola gauzatu den jaso du.

-0-

Udalaren idazkariak txostena egin du adierazteko kasu honetan honako legeak direla ezgarri:

- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. Udal Erregimeneko Oinarrien 7/1985 legea, 2/2016 legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena, Foru araudia eta Kontsortzioaren estatutuak.

Udal Erregimeneko Oinarrien 7/1985 legearen 87. artikulua, eta modu berean Euskadiko Toki Erakundearen 2/2016 Legeak Udalei Kontsortzioak sortzeko aukera ematen die, eta horiek, besteak beste zerbitzu publikoak kudeatzeko erabil daitezkeela. Dagokigun honetan Gipuzkoako hainbat udalask horien artean Azpeitiko- Gipuzkoako Ur-Kontsortzioa eratu zuten (elkarte-oinarria du eta zuzenbide publikoko erakundea da), eta bere xedea da sare primarioetan saneamendua eta ura hornitzeko azpiegituraren ezarpen eta ustiapena eta dagozkion zerbitzuak ematea, hori guztia baldintza egokietan eta indarrean dagoen araudiaren arabera.

Kontsortzioaren kudeaketa ziklo integralarena izango da ("goiko" eta "beheko" sareen kudeaketa barne hartzen ditu). Gainera, orain artean bezala dagokigun honetan, Kontsortzioak zabor zerbitzuaren kudeaketaren erreziboak bidaliko dizkie herritarrei (bi zerbitzuen tarifak errezibo bakar baten bidaliko baitira, eta biak oso lotuta daude elkarrekin).





Azpeitiko Udala

Prozedurari dagokionez SPAJ arautzen duen 40/2015 Legearen 11 artikulua Udalak onartutako akordioak eta hitzarmenak (zerbitzu publikoari dagokiona eta modu berean datuen babesari dagokiona) publikatu egingo dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Gaia Estrategia eta Hirigintza batzordeak aztertu eta irizpidetu ondoren Udaltzaia Osoko kideek aho batez, eta beti ere legezko gehiengoaren botoarekin ONARTU DUTE:

Azpeitiko Udalak 2022ko apirilaren 1etik aurrera ziklo integralaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren bidez ematen jarraitzea. Hain zuzen, Azpeitiko Udalak Kontsorzio horretako kide da.

Kontsorzioak Gipuzkoako Urak S.A. sozietatearen bidez emango luke zerbitzu hori. Zerbitzu horren barruan sartzen dira altako eta bajako sareen kudeaketa, bai uraren hornidurari dagokionez, bi saneamenduari dagokionez, eta baita egin beharreko inbertsioak eta hobekuntzak egiteari dagokionez ere.

Uraren ziklo integralaren kudeaketarako sinatu beharreko gomendioaren hitzarmena onartzea, eta gomendio horren bidez, Gipuzkoako ur Kontsorzioaren esku uztea uraren ziklo integralaren kudeaketa, likidazioa, tasen bilketa eta prezioak (zaborra barne).

Udaleko alkate-udalburuari ahalmena ematea Gipuzkoako Ur Kontsorzioarekin gomendioa sinatzeko, uraren ziklo integrala kudeatzeko.

Eta horrela jasoa gera dadin eta, alkate udalburuaren oniritziarekin ziurtagiri hau eman dut, Azpeitian, bi mila hogeita biko martxoaren hogeita bian.

O.E.  
ALKATEA,



